

eman ta zabal zazu



---

# ERIZAINZA ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA KALITATEA

IRRINTZI FERNÁNDEZ AEDO

SENDOA BALLESTEROS PEÑA

2016

ERIZAINZA GRADUA – MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZA FAKULTATEA – LEIOA

---

## IKASLEAREN IRAKASKUNTZA GIDA

# IRAKASKUNTZA GIDA

---

## 1. IRAKASGAIAREN TESTUINGURUA.

### 1.1.ERIZAINTZA ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA KALITATEA IRAKASGAIAREN DATU OROKORRAK.

#### 1.1.1. Edukien deskribapen txikia

Zainketen kudeaketak administrazio prozesuaren ulertzeak ezinbestekotzat hartzen du. Administrazio prozesuaren alderdi guztiak ezagutzea ezinbestekoa izango du, etorkizunean lan honetan arituko den ikasleak. Gaur egun erizaina da osasun zerbitzuen kudeaketan ardatz garrantzitsuenetakoa eta ondorioz aintzat hartzen da ezagutza hauek barneratuta eduki behar dituela lanean hasiko den momentutik, erizaina baita zainketen kudeaketan arduraduna.

#### 1.1.2. Ikasleak bereganatu beharreko gaitasunak proposatutako gai zerrendarekin

Proposatutako programak bost atal ezberdinetan banatzen da, nahiz eta elkarrekin joan behar duten irakasgaia modu egoki baten uler dadin.

#### ➤ Gai-zerrenda

#### Igo atala: Administrazio prozesua

Administrazioaren eboluzioa zientzia soziala bilakatu arte. Kudeaketaren sorrera.Administrazio zientifikoa. Administrazio klasikoa. Kudeaketa zikloa. Funtzioak eta azpi-funtzioak. Erlazioak. Erizaintzan eta kudeaketa.

**II. atala: Osasun sistemak eta kudeaketa. Inguruko herrialdeen analisi sozio-kulturala.**

Osasun sistemak eta kudeaketen eboluzioa. Kulturaren garrantzia osasun munduan. Osasun sistemak batek zer suposatzen duen aztertuko da.

**III. atala: Osasun egituren planifikazioa eta antolakuntza: Erizaintzaren kudeaketa antolakuntzan.**

Plangintza. Helburuak, denborak, dimentsioak eta aztertuko dira. Antolakuntza. Antolakuntza aldiak eta egituraketa. Egon daitezkeen osasun estrategiak zainketetan.

**IV. atala: Zuzendaritza. Zuzendaritza funtzioa. Erizaintza prozesuaren kontrola eta ebaluaketa.**

Lidergoa, zuzendaritzaren zati garrantzitsua. zuzendaritza zientifikoa. Zuzendaritzaren baliabideak (motibazioa, gainbegiraketa, koordinazioa, delegazioa,.... Ebaluaketa. Kudeaketan ezinbestekoa hobekuntza, helburuak eta lortzeko. Ebaluaketa estrategiak eta funtzioak.

**V. atala: Kalitatea osasun kudeaketan, kalitatea etengabe.**

Kalitatezko asistentziaren elementuak. Kalitatearen kudeaketa. Kalitatea osasun sistemetan eta asistentzian. erizaintza prozesuaren estandarizazioa. Erizaintzan egiten diren auditoriak.

**➤ Gaitasunak**

Ondoren deskribatuko diren gaitasunak, gaitasun zehatzei egiten diete erreferentzia, hauek baitira irakasgai hau landu eta gero lortu behar direnak.

**Zehatzak:CE**

**a:** Espainiako osasun sistema ezagutzea

**b:** Erizaintza zerbitzuen ezaugarriak eta hauen kudeaketa ezagutzea.

**c:** Taldeen kudeaketen teknikak ezagutzea eta praktikan jartzen jakitea.

### **Atal bakoitzean landuko diren gaitasunak zehazten duen taula**

<b>Gaitasunak</b>	<b>Irakasgai atalak</b>
<b>CEa</b>	<b>II. atala</b>
<b>CEa; CEb; CEc</b>	<b>III. atala</b>
<b>CEb; CEc</b>	<b>IV. atala</b>
<b>CEa; CEb;CEc</b>	<b>V. atala</b>

## **2. ERIZAINTZA ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA KALITATEA IRAKASGAIAREN HELBURUAK.**

### **2.1. HELBURU OROKORRA.**

Zainketek administrazio prozesuaren etapan oinarritzen dira. Kalitatezko zainketak ezin dira eman administrazio prozesu on bat eduki ezean. Administrazio prozesua erizaintza baliabideen kudeaketarekin erlazionatzen dira. Osasun plan egoki batek edota osasun zainketa batek aurretiazko lana dakar. Lan hau, administrazio prozesuan oinarritzen da, non dauzkagun baliabideak gizartearen behar izanetara bideratzen diren. Horregatik administrazio prozesuaren egitura ulertzea eta gaur egungo osasun sistemei egokitzea du helburu nagusizat irakasgai honek.

### **2.2. HELBURU ZEHATZAK.**

- Administrazio prozesuaren egitura ulertzea. Horretarako administrazio prozesuaren aurrekariak jakitea ezinbestekoa izango da.
- Gaur egungo osasun sistema garrantzitsuenak ezagutzea. Hauen analisi kritikoa eginez, osasun sistemek hobetu dezaketena aztertu daiteke.
- Plangintza eta antolakuntzaren elementuak zeintzuk diren jakitea. Plangintza eta antolakuntza administrazio prozesuaren lehenengo urratsak dira, hauek ondo

egituratu ezean administrazio prozesua ezingo da Aurrera eraman. Horregatik hauen ezaugarriak eta denborak ondo jakitea ezinbestekotzat hartzen da.

- Zuzendaritza administrazio prozesuaren alderdirik ezagunena da. Zuzendaritza administrazio prozesuaren ardatza izanik elementu asko bereganatzen ditu. Hauek ezagutzea eta nola kudeatu behar diren jakitea ezinbestekoa da administrazio prozesua aurrera ateratzeko. Beraz, zuzendaritzaren elementuak zeintzuk diren jakin beharra dago.
- Kontrola eta kalitatea administrazio prozesuaren atalik ezezagunena da. Hala eta guztiz ere, prozesurik garrantzitsuenetakoa suertatzen da kalitatezko erizaintza zainketa bat aurrera eraman nahi denean. Horregatik kontrola eta kalitatea osatzen duten elementuak eta hauek aurrera nola eraman behar diren jakitea funtsezkoa suertatzen da erizainen eguneroko lanean. Horrela, kontrola eta kalitatea, nola, noiz eta zelan egin behar diren jakitea ezinbestekoa da.

### **2.3. HELBURU HORIEK LORTU DIREN JAKITEKO IKASLEAK BERE BURUARI EGIN BEHARREKO GALDERAK.**

- Administrazio prozesuaren aurrekariak ezagutzen ditut? Eta horiek ezarritako teoriak?
- Munduan dauden Osasun Sistema ezberdinen artean ezberdintzeko gai naiz? Eta bakoitzaren ezaugarriak badakizkit?
- Plangintza eta antolakuntzaren ezaugarriak ezberdintzeko gai naiz? Bakoitza noiz burutu behar den badakit?
- Zuzendaritzaren elementuak ezagutzen ditut? Badakit zuzendaritzaren funtzioak zeintzuk diren?
- Kontrola eta kalitatearen elementuak ezberdintzen ditut? Kontrola eta kalitatea noiz burutu behar diren badakit? Kontrola eta kalitatearen garrantzia azaltzen badakit?

- Administrazio prozesuaren oinarriko elementuak zeintzuk diren badakit, eta Espainiako zein Euskal autonomi erkidegoaren Osasun Sistemetan ezagutzeko kapaza naiz?
- Egindako kudeaketa osasun arlo ezberdinetan ezagutzeko abilezia daukat?

### 3. IRAKASGAI HAU AURRERA ERAMATEKO PROPOSATZEN DEN KRONOGRAMA.

Gaiazerrenda	Gaiaren pisua irakasgaiaren portzentaian adierazia	Irakasgaia menperatzeko ikasleak landu beharreko ordu kopuruak
I.atala	%10	7 ordu
II.atala	%20	10 ordu eta 30min
III.atala	%20	7 ordu eta 30min
IV.atala	%30	12 ordu eta 30 min
V.atala	20%	8 ordu eta 30 min

#### 4. IRAKASGAI HAU AURRERA ERAMANDA LORTZEN DIREN IKASKUNTZA HELBURU ETA EMAITZAK.

Gai-zerrenda	Lantzen diren gaitasunak	Ikaskuntza helburuak	Ikaskuntza emaitzak
<b>II. atala</b>	<b>G144;</b>  <b>CEa</b>	Osasun Sistema ezberdinak ezagutzea	Administrazio prozesuaren ezaugarri garrantzitsuenak jakitea eta gure osasun sisteman.  Osasun sistema ezberdinen alde onak eta txarrak modu kritikoan aztertzea.
<b>III. atala</b>	<b>G144; CEa; CEb;</b>  <b>CEc</b>	Plangintzaren zein antolakuntzaren ezaugarriak ezagutu eta kudeaketa teknikak ezagutzen ditu.	Erizaintza kudeaketa prozesuaren eta plangintza eta antolakuntzaren arteko erlazioa egiteko gai da. Plangintza eta antolakuntza osasun arloan ezagutzeko gai da.
<b>IV. atala</b>	<b>G144; G152; G154;</b>  <b>CEb; CEc</b>	Buruzagi on batek jarraitu beharreko papera aztertzen du, edozein egoeraren aurrean.	Zuzendaritzaren ezaugarriak ezagutzen ditu osasun arlo ezberdinetan.
<b>V. atala</b>	<b>G144; G154; CEa;</b>  <b>CEb; CEc</b>	Prozesuen jarraipen on baten beharra ulertzen du, eta honek lanean hobekuntza suposatzen duela. Kontrola urrera eramateko elementuak ezagutzen ditu.	Kalitatearen kontzeptua definitzen du, asistentziaren kalitatea aztertzeko gai da eta kalitate ereduak plasmatzeko gai da.

## **5. IRAKASGAI HAU AURRERA ERAMATEKO PROPOSAZEN DEN METODOLOGIA ETA EDUKI BEHARREKO AURREBALDINTZAK.**

Erizaintza prozesua bere osotasunean ezagutzeko, erizaintza zerbitzuen kudeaketa ezagutu behar da. Hala eta guztiz ere, kurtso hau burutu ahal izateko, aurretik erizaintzazko beste ezagutzarik izatea ez du beharrezkoa ikusten. Izan ere, erizaintzaren ohizko esparrutik kanpo geratzen baita.

Irakasgaia modu egoki baten aurrera eraman ahal izateko, atalka lantzea gomendatzen da. Atal guztiak elkarrekin lotuta daude baina modu independentean landu daitezke, beti ere gaien ordena jarraituz. Horrela, dena landuta dagoenerako, ikasleak gai izan behar du gaiak elkarrekin erlazionatzeko. Beraz, lehendabizi materiala irakurri eta ondoren proposatzen diren auto-ebaluazio probak egitea gomendatzen da. Auto-ebaluazio probetan akatsen bat izanez gero, erantzuna emandako materialean bilatu beharko du ikasleak. Hau egin ostean erantzun zuzena bilatzen ez badu, gomendatutako bibliografiara jo beharko du. Ariketak, behin atal guztiak landuta daudela eta auto-ebaluazio probak eginda daudela egitea proposatzen da.

Atal bakoitzarekin hasi aurretik, atal bakoitzak duen audio entzutea gomendatzen da. Hemen, ikasleak atal horretan landuko denaren laburpen txiki bat entzun ahal izango du, eta aldi berean, administrazio prozesuaren barnean atal horrek duen kokapena argituko delako.